

# 'ANDRÉS ISASI' MUSIKA ESKOLA

## 2026-27 ikasturtea



### Izena emateko jarraibideak

1.- Eskabide berrietarako izena emateko epea: 2026ko maiatzaren 15etik ekainaren 1era

2.- Egoitza elektronikoaren bidez izen-ematea: <https://sede.getxo-kultura.eus>

(Izapide nabarmenduak>Musika Eskola>2026-27 ikasturterako izen-ematea)

### 3.- Aurrez aurreko izen-ematea:

- Algorta (Muxikebarri)
  - Goizez (9:30-13:30): astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala
  - Arratsaldez (16:00-19:00): asteartea, asteazkena eta osteguna
  
- Areeta
  - Herritarren Arretarako Bulegoa (HAB): Las Mercedes, 13. 8:00-14:00
  
- Romo Kultur Etxea (Udal Euskaltegia, 4. solairua)
  - Astelehenetik ostegunera (8:30-17:00)
  - Ostirala (8:30-14:00)
  - Ekainaren 1a, astelehena (8:30-14:00)
  
- Herritarren Arretarako edozein bulegotan ere izena eman ahal izango da ohiko ordutegian.

### 4.- Oharrak:

- Plaza libreen esleipena zozketa publiko baten bidez egingo da; eskatzaileak, sartu ahal izateko, honen emaitzaren arabera ordenatuko dira.
- Zozketa baino lehenago, ekainaren 5ean, ostiralean, zerrendak publikoki argitaratuko dira (bai <https://getxo-kultura.eus> web-orrian baita Musika Eskolako iragarki-tauletan ere) egin beharreko zuzenketak egin ahal izateko. Zuzenketa-eskaerak ekainaren 9ra arte egin ahal izango dira. Zozketa ekainaren 11n, ostegunean, egingo da aurrez aurre Muxikebarrin, 11:00etan.
- Matrikulazioa behin betikoa izango da eskolen ordutegia onartu ondoren.
- Getxon errolatutako eskatzaileek eta 14 urtetik beherakoek dute lehentasuna sartzeko unean.

## ‘ANDRÉS ISASI’ MUSIKA ESKOLA 2026-27 ikasturtea

- 4, 5 eta 6 urteko umeak, 2022, 2021 eta 2020an jaiok, Musika eta Mugimenduan inskribatuko dira.
- 7 urteko umeak, 2019an jaiok, Musika-Hizkuntza eta Musika tresnaren Harrerakoan inskribatuko dira.
- 8 urtetatik aurrera, derrigorrezkoa da musika-tresna aukeratzea. Hiru adierazi daitezke, lehentasunez ordenaturik, kasu guztietan plazak ezin baitira bermatu. Musika-tresna huetatik **bakarra aukeratu** daiteke: **Pianoa, Gitarra eta Perkusioa.**
- Musika-tresnaz aparte, beste ikasgai batzuk aukera daitezke. Aurretiko ezaguera musikalki eduki ezean, nahitaezkoa duzu Musika-Hizkuntzan inskribatzea.
- 14 urtetik beherakoek izango dute lehentasuna musika-tresna aukeratzeko.

**5.- Ikaslearen egoitza bietan kokatzeko irizpideak:** Ikasle guztiek ikasiko dute, **ahal den neurrian**, euren etxetik hurbilen dagoen egoitzan. Espezialitatea, egoitza bakarrean ematen den kasuetan izan ezik.

### 6.- Tasak:

- Matrikula .....31,50 €
  - Musika-tresna eta kantua.....368,55 € (40,95€/hilero)
  - Irakasgai kolektiboak (Musika eta Mugimendua, Musika-Hizkuntza, Orkestra, Banda, Abesbatza, Ganbera-taldea, Fanfarrea, Konboa, Ahots-teknika, Jazz-harmonia) .....207,90 € (23,10€/hilero)
  - Musikoterapia .....468 € (52 €/hilero)
- Matrikula, plaza eta ordutegiak baieztatu ondoren ordainduko da. Matrikularen zenbatekoa **ez** da itzuliko.
  - Tasen ordainketa 9 hilekotan banatuko da urritik ekainera.